

- **Zer berri:** Bi atxilotu marihuana hazi eta trafikatzegatik
- **Kirola:** Partehartze handia Marraskilo Tour mendi itzulian

soraluzeko
hamabostekaria **250.** alea
2011ko irailaren 30ean

pil-pilean



Alberto Gomez
“Muga fisikoak baino,
gehiago dira sozialak”



FRESATZEKO ETA MANDRINATZEKO MAKINAK FRESADORAS-MANDRINADORAS



SORALUCE

Soraluce S. Coop.
Barrio Osintxu s/n
20570 Bergara
Gipuzkoa

Tel. +34 943 76 90 76
Fax: +43 943 76 51 28
soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com



lankidetzan
elkarlana

Debarrena gara
www.gurebalioak.com

gurebalioak
DEBABARRENA



MARKEL ARIZAGA



AITOR MADRID

OIHAN ZIBILIZATUA

Aupa Aitor, dana ondo? Zer moduz jua da udia? Nik esan ahal dotsuten bakarra zera da, jua, udia jua dala, azkar gainera. Madrilen berriz be urtian ziharreko jende mordua nabaritzen da, batez be goizetan ikusten diran kotxe guztiekin, eta garraino publikuetan daukagun “ambientiak”.

Metro eta autobusetan, jendian oporren bukaerian batera bertan egunero ikusi ahal diran erritualak bueltatu dira. Esertzeko leku bat eskuratzeko tren batetik bestera ikusten diran karrerak, eta autobusak gure aurpegi aurrarian atia itxi eta alde egittia ekiditeko trikimailuak, honen adibide dira.

Gaur bertan “naturak” eskaintzen dokun momentu paregabe horretako bat ikusi ahal izan dot.

Goizeko autobus barruan neguala jada, zenbait pertsona kanpua geratu dira. Kanpoko jendiak barruan lekua zeguala esaten zeban bittartian, badakizu, aurreko atia jendez gainezka eta atzeko partian hutsuniak, autobus barruan zeguan jentia segittuan hasarre, kanpoko lotsagabe horrek lane-rako bidaixa atzeratzen zebizelako. Hurrenguan esnatu daittezela lehenago! Autobusian pixkat hobeto antolatu orde, borondate izpi txiki bat erakutsi orde, bakoitza berera ikustiak, gauza errezenetan zenbait pertsonen solidarioro izateko ezintasuna ikusi dot.

Egunerokotasunian erakusten dogun jokamoldiak dokumentaletan ikusten diran animalixetatik hain urrun ez gabizela azaleratzen dau, gure interesak defendatzeko instintu hori guztiz presente daukagula frogatzen dogun momentutik. Ez al dozu uste, Aitor, mozorro elegante baten barruan bizi diran pizti batzuk besterik ez garala?

“*Dokumentaletan ikusten diran animalixetatik hain urrun be ez gabiz*”

Markel Arizaga

“*Etika eta morala tamalez gizarte honetatik ixa desagertu dira*”

Aitor Madrid

Aupa Markel. Jaixoberrixa baino izaki berekoiagorik ez dago munduan. Eta biharko hola izan, bizitza aurrera etartzia nahi badau. Umiei erakutsi egin bihar izaten jakue ze jarrera izan munduan aurrarian. Horretarako eskolia dago baina batez be familixia, euren gertukuak dare. Hezkuntzako arduradunak nahiz eta ahalegin haundixena egin giza baloria erakusten, bere inguru pertsonalian amorrainua, enbirixa, berekoittasuna eta gorrotua nagusi badira, balio arbuigarri horrek bereganatuko dittu. Eta biharko gizaki heldu negargarri eta baztertzaila bihurtuko da.

Azken finian, egun gizartean ikusten dittugun jarrerak giza balixo batzuen galaren ondorixo baino ez dira. Etika eta morala tamalez gizarte honetatik ixa desagertu diran balore eredarriak dira. Zuk aipatzen dozun adibidia honen erakusle da. Norberekoitasun neurrigabia eredu dan heinian gizartian halako gehixago ikusiko dittugu. Faltsukerixia han eta hemenka ikusi leikela be nabarixa da. Gauza bat esan eta bestia egin. Mozorro bat jantzi eta, ez dakit elegantia edo ez, eta barruan izaki nazkagarrixa aurkittuko dogu.

Baina tira, badago itxaropenerako arrazoirik. Bizi dogun krisixak egora gogorak bizitzera garamatza sarri. Hala ere, ekaitza modukua da, pasatzen danian eguzkixa urtengo da. Gizarte eredu honek beriak egin dittu eta arlo guztietan al-

daketak ekarriko dittu. Beste eredu guztiz ezberdinetako gizarte batian biziko gara. Askatasuna, abegikotasuna, eskuzabaltasuna eta elkartasuna ardatz izango dittuan gizarte bat jaixoko da. Gure esku be badago, emon deiguzen pausuak hala izan dein.

Goguan hartzeko

Errotan beta eta bidean prisa.
Gotzon Garate



GUTUNAK

“75 urteko isiltasuna hausten” ... eskerrik asko!

Irailaren 22an 36ko gerrako eta diktadurako biktimak oroitzeko ekitaldian izan ginen Soraluzean. Ekitaldi xume bezain hunkigarria izan zen, oroimenean gordetzeko modukoa, eta lerro hauek gure esker ona agertzeko erabili nahiko genituzke.

Esker ona, alde batetik, pozez ikusi genuelako aldizkari honetako azken alean gure osaba Joxe Mari Leteren erretratua eta haren fusilamenduari buruzko azalpena (horregatik iruditzen zaigu aproposa gure gutuna ere Pil-pilean-en bertan argitaratzea).

Eta eskerrik beroenak, bestetik, Udalak Soraluze 1936 Lan Taldearen laguntzarekin antolatutako oroimen eta aitortza ekitaldiagatik. Plaentxian aurrerantzean irailaren 22a “Oroimen eguna” izango dela jakitea ere benetan pozgarria da guretzat.

75 urte pasa diren arren, frankismoak gu guztiongan utzitako arrastoa sakona da oraindik ere. Pentsa, garai hartako zoritxarreko gertakarien

ondorioz, gure osabaren anai-arrebek eta gurasoek ez zituzten Soraluzeko kaleak sekula gehiago zapaldu; Deban finkatu zuten bizilekua, 0-tik hasi beharra izan zuten berriz ere.

Baina urte luze hauetan isiltasuna izan da nagusi. Sufrimendu, amorru edo sentimendu gazi-gozo horiek isilean, ezkutuan, mantendu ditugu nolabait.

Horregatik eskertu nahi dugu, benetan, Soraluzean memoria historikoa berreskuratzeko azken hilabeteotan egiten diharduen lana (segi fin-fin lanean!).

Haiei esker gu geu ere azkenaldixan herri honetara etorri gara bisitan, eta ekitaldi egunean gure alabak ere izan genituen alboan. Gure ondorengoek gure arbasoen historia ezagutzea oso garrantzitsua da.

Gaur egun Deban bizi garen arren, Plaentxia gure herria ere badela sentitzen dugu. Gure senideek ere beti esan izan zuten harrotasunez “plaentxiarrak” zirela.

Besterik gabe, eskerrik asko guztiei!

Elene eta Josemari Lete

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 **PIL-PILEAN**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Ubane Madera

60 zentimetroko mundua

Gauza kurioa da umea izatea. Hasteko, umea izan ostean sekula baino zorion agur eta opari gehiago bidaltzen dizkizutelako: norbere lagunek, bikotearenek, gurasoen lagunek, lankideek... demasa da. Eta behin ospitaletik etxeratzean, dimentsio berri batean sartzen zarelako: laugarren dimentsioan, gurasoenean. Dimentsio misteriotsua da hori. Gauzak desagertu eta umea existitzen da bakarrik. Telefonoz deituz gero: "Zela dago txikia?" da galdera. Eta erantzuna: "Ni egundoko katarro eta logurarekin, baina lasai, txikia ondo dago-eta". Eta kalean ba gauza bera: gurasoak biluzik joanez gero, inor ez litzateke jabetuko, guzti-guztiekin bakarrik umearendako begiradak dituzte-eta: zela doan hazten, negarrez baldin badoa goseak dagoelako ei da, esna baldin badago zein koloretako begiak dituen ikustea da gustatzen dena, lo baldin badago zelako izterrak dituen... norberaren umea gauza publiko bilakatzen da, baita ezezagunendako ere. Eta bereziki emakumezkoak badira. Eta aizue, kurioa da norberak espero baino hobeto onartzen duela hori guztia. Azken batean norbera ere egun guztia dago bere umeari begira. Bapatean munduak 60 zentimetro ditu.

((ENTZUTEKUAK))

Zuhaitz Zatitxuak Blues Band taldea

Mendata parean eta inprobisazioaren eraginez, Gaizka, Joanes, Josu eta Juanek duela bi hilabete sortu zuten Zuhaitz Zatitxuak Blues Band taldea. Aspalditik rock doinuak lantzen badituzte ere, harmonika, gitarra, baxua eta bateria nahastuz bluesa lantzeko abenturan murgildu dira orain.

Nundik datorkizue blues estiluakiko zaletasuna?

Udan kanpinian gendela harmonikia etara eta melodia goxak egittia okurritu jakun. Mugittu Gherrixa jaialdixan harmonikia etara genduan lehenengoz taula gainera. Andramari egunian berriz, Mendatan joteko aukeria emon eta inprobisazina oinarri, lelengo kontzertua emon genduan.

Zer eskaintzen dau Z.Z. Blues Bandek taula gainian?

Arrarua da hogeituroko lau gazte blues doinuak lantzen ikustia. Lauron artian izugarriko afinitatia dago eta inprobisatzeko orduan, emozinuan, igartzen da. Sentimenduzkomelodiak sortzen dittugu. Euskaraz kantatziak eta eszenatoki bare jardutiak gertutasun haundia eskaintzen dau baita. Poteorako giro lasai aparta da guk sortzen doguna!

Atentzina deitzen dau taldearen izenak. Nundik dator?

Mendata tabernako jabiak, Gregoritik, proposatutako izena da. Bluesantzat berezika dala eta atentzina deitzen zebala ikusi, izena gustatu eta berau erabiltzia erabaki genduan. Gaztelaniazko "que pasa tronco" esaeria euskaratetik dator!



Laukotea inprobisazio kontzertutxo bat ematen.

Zein taldeen eragina dauka zuen bandiak?

Marcos Coll aho soinuari ezagunak bluesa sortzeko gonbitia luzatu eta guk onartu egin genduan, bestiak beste, Los Reyes del K.O da guretzat talde referente bat. Gure doinuetan inguruko laugun eta senidiak be badauke eragina.

Emanaldixetan publiko mota ugarixa batzen da?

Bluesera zaletutako gazte gitxi dago ondiok baina hor gure apostua, gazte jendia bluesera zaletzia eta bide batez, gazte gehixago bluesa egittera animatzia!

Hurrengo emanaldixa Eibarko Coliseuan?

Urrian 14an izango da eta nazioartean oso ezagunak diran bi blues musikaririk aurretik joko dogu, Rico MacClarrin eta Marcos Coll. Maila haundiko erronka haundia da guretzat! Irakurle danak dittue antzokiko atiak parez-pare zabalik. Kontakturako: www.myspace.com/zzbluesband edo 686 028 946 (Gaizka).

"Gazte jendia bluesera zaletzia nahi dogu"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Bi atxilotu marihuana hazi eta trafikatzegatik

Bergarako ertzain-etxeko agenteek pertsona bi atxilotu zituzten Soraluzean, (32 eta 26 urteko bi gizonetako) ustez marihuana edukitzea eta haztea eta horrekin trafikatzeko egotzita. Bergarako ertzain-etxeak jakinarazi duenez, Ertzainek sail batean landatutako hogei-



Beste landaketa baten irudia.

ta hamar landare baino gehiago atzeman zituzten eta horren ondoko txabola batean substantzia hori prestatzeko instalazio elektriko bat (presio handiko argiak, termometroak, tenporizadoreak eta aire-erazgailu bat) aurkitu zuten. Beste txabola bat ere ba omen zuten, lehortegi bezala erabiltzeko. Baratz horren bi arduradun identifikatu eta gero, inguruetan miaketa egin, substantzia estupefaziante horren landareak atera eta eraman egin zituzten.

Epaiketaren zain daude bi gazteak

Ertzaintzak ikertzen jarraitzen du oraindik. Sail horren arduradunak izatea egotzita atxilotu dituztenak, berriz, Eibarko Guardiako Epaitegiaren esku utzi zituzten barixaku goizean, eta aske daude epaiketaren zain.

Komunikazio tailerra azaroan izango da

Ume eta helduen arteko komunikazioa hobetzeko tailerra urrian beharrean azaroaren 23an hasi eta hurrengo hiru eguaztenetan jarraituko du. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko du arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara.

Beldur Barik lehiaketa martxan

Bigarren edizio honetan ere emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duen adierazpen artistiko guztiak dira baleko: ekintzak, ideiak, argazkiak, proiektuak, musika, poesia, dantza, animazioak, ilustrazioak, performanceak, bideoak... Proposamenak bidaltzeko epea azaroaren 11n bukatzen da eta guztira hiru sari banatuko dira eskudirutan. Sarien zenbatekoa eta oinarri denak www.plaentxia.com webgunean.

UEUren ikastaro berriak

Udako Euskal Unibertsitateak udazkenean eskainiko dituen ikastaroen zerrenda jakinarazi berri du. Guztira bederatzik asgai ezberdin lantzeko aukera izango da Eibarko Markeskua jauregian: Moodle 2.0-ren oinarriko erabilera, teknologia berriak eta intimitatea, argazkigintza dokumentala, gaur egungo munduaren historia, komunikazio eraginkorren artea, arreta falta eta hiperaktibitatea duten ikasleekin modelatze lana, tantra maitasunaren artea, gaixotasun konplexuen genetika eta geogebra. Soraluze Udalak matrikularen erdia ordainduko die ikastaroetan izena eman eta herrian erroldatuta dauden denek. Informazio gehiago: www.ueu.org.

Afari vegetarianoak gaztetxean

Udako etenaldiaren ostean, barixaku honetan hasiko da berriz ere afari vegetarianoen eskaintza Gaztetxean. Iluntzeko 20:30etatik seitan brotxetak, plater konbinatuak arroz integralarekin eta berdurak tenpura dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Auto istripua Sagarrerrek

Lurralde buseko autobus batek eta auto batek istripua izan zuten Sagarrerrekako bidegurutzean. Udaltzaingoak azaldu zuenez, "autobusa herritik irtetera zihola, bidegurutzean zegoen autoko gidariak ez zuen "Stop"-a behar bezala egin eta autobusak bere bidean harrapatu zuen". Ez zen zauriturik egon baina autobuseko bidaiariak ibilgailuz aldatu behar izan zuten.



JUAN MARI
ARRAINDEGIA
943 75 24 40
MERCATU PLAZA
ESKERRIK ESKO PLAZA/IZARRA/REI
GUGAN IZANDAKO KONFITANTZAGATIKI

MENDIZABAL
okindegia
Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Etxebizitza sozialen arauak plenora

Urriaren 3ko udalbatzarrean, Maisuen Etxeetan egitekoak diren etxebizitza sozialak erregulatuko dituzten arauak bozkatu dituzte. Udal Gobernu Taldearen proposamenak etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunak edo puntuatzeko arauak erregulatu dituzte besteak beste. Merkatu plazako ordenantza berriak ere aurkeztu eta bozkatu dira, bertako jarduera eta funtzionamendua erregulatuko dutenak.

Gudarien omenezko mus txapelketa

Bihar zapatua, urriak 1, gudarien omenezko XV. Mus Txapelketa jokatu da Arrano Elkartearen. Joku bizkorra izango da, momentuko eliminatoriekin. Arratsaldeko 16.00etan hasiko dira bikoteen lehiak. Izen emateak 15 euro balioko du eta lau bikote onenek hurrengo sariak jasoko dituzte:

- 1.- Bildotsa, txapela eta garaikurra.
- 2.- Untxia eta garaikurra.
- 3.- Txuleta eta bi txanpan botila.
- 4.- Kafea eta bi ardo botila.

Bake epaile berria behar da

Datorren urriko ohiko saioan legealdi berriko bake epailea aukeratu da. Kargua hartzen interesa duenak instantzia bat edo eskaria aurkeztu behar du erregistroan. Eskariarekin batera kargu-hartzea defenditzeko arrazoiak edo argumentuak aurkez ditzake. Lan honetarako ez da titulaziorik eskatzen, lana betetzeko beharrezko gaitasunak edukitzea baino ez.



Irailaren 22a "Oroimen eguna" izango da hemendik aurrera

75 urte eta gero, gogoan izan zituzten 36ko gerrako eta diktadurako biktimak. "Soraluze 1936 Lan Taldea"k antolaturiko ekitaldia, Arianne Unamunok abesturiko bertso hunkigarri batzuekin hasi zen. Mikel Santiago eta Lorea de Castrok zinegotzi guztiek sinaturiko agiria irakurri zuten, biktimen sufrimendua aitortzen duena eta Frankoren tropak herrian sartu zireneko urteurrena "Oroimen eguna" izendatzen duena: "Garai latz haiek bizi izan zituzten plazentziatar asko zendu arren eta zoritxarrez askorentzako beranduegi dela jakin arren, haiekin eta bizi diren beste askorekin zorretan dagoela gure herria adierazi nahi dugu. Baita irailaren 22a "Oroimen Eguna" izendatu eta urtero Soraluzeko herriaren maitasuneko oroimen eta aitortza eskaintzeko ekitaldia antolatzeko konpromisoa hartzen dugula". Ekitaldia amaitzeko biktimei lore eskaintza egin zieten zinegotzi zein herritarrek, krabelin bana utziaz.



Udaleko Gizarte Zerbitzuetan lan egiteko eskaintza

Soraluzeko Udalak hiru hilabeterako etalari-jardunerdiz Gizarte Zerbitzuen Departamentuan aritzeko pertsona bat hartzeko asmoa du. Gizarte laneko diplomatu agiria eduki behar da, EGA agiria edo baliokideak eta

kontuan hartuko da, Gizartenet aplikazioari buruzko ezagupena eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan esperientzia izatea. Interesatuak LANBIDEREren bitartez egin beharko dute eskaera.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

ALBERTO GOMEZ SOLOGAISTOA

“Muga fisikoak baino, gehiago dira sozialak”

Burmuin paralisia berak nahi zuena lortzeko traba izan ez zedin lan handia egin du Albertok (Soraluze, 1958). Inguruko laguntzaz eta burugogorkeriari eskerrak, bere kasa moldatzen da. Kanpoko itxura ez dela dena frogatzen duen adibidea da berea, mugikortasunean mugak izatea adimen mailarekin ez dagoela derrigor lotuta ikustarazten duena.

Zelakua da Alberto?

Ideiak nahiko argi ditut baina batzuetan egia direla uste dudana hainbat gauza baieztatzea kostatu egiten zait. Pixkat burugorria ere banaiz eta horrek askotan intseguritatea sortzen dit. Gauzak planteatzen hasten zarenean, esan dezagun beste ikuspuntu batetik ikusten dituzula, eta uste duzun hori hobeto edo okerrago egon daitekeenaren zalantza sortzen dizu.

“Herriko jendeak tratu egokia eman izan dit”

Danan gainera oso autonomua zarala dino jende guztiak.

Txikitan, Muguruza izeneko sendagile bilbotar batek ikusi ninduen. Soraluzen oso ezaguna zen. Esan zidan: “Zu futboletik ez zara biziko, baina mutiko autonomoa izango zara”. Antza, ez zuen nere moduko kasurik inoiz izan, mugikortasun arazoak izan eta burua ondo zuenik.

Burmuin paralisia, horixe diagnostikatu zotsuen. Ze eragin izan dau hitz honek zeure bizitzan?

Ba asko mugatzen zaitu zeure buruarekiko zein jendearekin erlazionatze aldera. Izan ere, muga fisikoak baino, gehiago dira sozialak. Nahiz eta zentzu horretan zorte handia izan dudana. Zeren herriko jendeak naizen moduan onartu izan nau beti eta tratu egokia eman izan dit.

8 urtekin hasi ei zinan oinez, Ondarruko plaian. Ze orotzapen dittuzu?

Medikuek hondartzara joateko aholkua eman zigiten eta Ondarroara joaten hasi ginen. Badut orotzapena ni hondarretan oinez hasi nintzenekoa. Hasiere ezin nuen zutik mantendu, eta poliki-poliki, gurasoen laguntzarekin lortu egin nuen.

Erreabilitazioak be lagunduko zotsun.

Bai noski. Eibarko Aspacera joaten aritu nintzen, amonarekin, egunero, 9 urtez gutxi gorabehera. Hamabi urterekin alta eman zidaten, eta aurrera egiteko soluzio bakarra ikastea zela, jakituria hartzea zela esan zidaten.

Motzean

Zaletasunik? Irakurtzea eta musika entzutea.

Liburu bat? Gabriel Garcia Marquez-en “100 años de soledad”.

Kantu bat? Tears for fears-en “Woman in chains”.

Gustoko leku bat? Los Cristianos (Tenerife) eta hegoaldea, orokorrean asko gustatzen zait.

Pelikula bat? Blade Runner, 2001 Espazio Odisea, Cayo Largo...

Egitteke daukazun zerbait? Liburu bat idatzi nahi nuke. Zientzia fikziozko bat, Isaac Asimov-en estilokoa.



Bere ama Cristinaren besoetan zazpi bat hilabete zituela. Atzean kañoi fabrika.

Eta oin ze egitten du Albertok goizetik gabera?

Beti saiatzen naiz etxean laguntzen. Aisialdian irakurtzea gustatzen zait, telebista ikusi... Gaueko 23.00etarako ohean izaten naiz. Ez naiz aspertzen, egiatan eguna hegan joaten zait...

Oporretan be emoten ditzuzu hile batzuk.

Bai urte asko daramatzagu udan Tenerife-ra joaten. Baita Torrevieja eta Marbella-
ra ere. Egia esan, batzuetan kokoteraino amaitzen dut horrenbeste maleta egin eta desegiten eta hainbeste eguzkirekin.

Hondartzia gustatzen jatzu orduan.

Asko erlaxatzen nau. Eta pastilarik gabe! Neri txikitari "valium 5" a errezetatzen zidaten. Lasaigarri oso fuertea da. Etxetik eskolara tontotuta joaten nintzen. Behin, nahikoa zela erabaki nuen. Orain, nire valiuma hondartza da. Igerian egiteak asko lasaitzen nau.

Zelako herrixa da Soraluze? Gustora bizi zara bertan?

Maitasun-gorrotoko harremana dut herriarekin baina bai, gustatzen zait bertan bizitzea. Kanpora irteten naizen guztietan oso gustora itzultzen naiz. Izan ere, herria herria da, nire herria.

Zer uste dozu jendiak pentsatzen dabela? Inportatu dotsu horrek?

Gaztetan orain baino askoz gutxiago axola zitzaidan. Eta ze pentsatuko duen jendeak? Ba pentsatzen dut denetik egongo dela, bizitzako legea da hori!

Unibertsitatera be jua zinan lauzpabost urtez, ezta?

Donostiara joan nintzen psikologia ikasketak egitera. Bost urtez Eibarko ikaskide batzuekin bizi izan nintzen bertan. Lehen aldiz irten nintzen etxetik eta askorako baliotza izan zidan. Sukaldean ikasi nuen, etxeko

lanak egiten... Azken urtea libretik egin nuen eta erabateko kaosa izan zen. Azken batean, helburu jakin bat ipini ezean ezin daiteke ezer lortu.

"Zuk 5 minututan egiten baduzu, nik 10ean egingo dut"

Zegaittik ez zenuan amaittu?

Kanpo irudiak asko egiten du, badakizu, keinuak, posturak eta guzti horrek. Esan dezagun eremu hori guztia zail samarra dudala, daukadana daukadalako. Laga nuen pixkat hasi nintzelako pentsatzen nik ezingo nuela sinisgarritasunik sekula transmititu. Ordurako sei urte neramatzan ikasten eta ez nuen gehiago luzatzerik nahi.

Lagundu dotsu zer baitetan piskologiak?

Ulerkorragoa izaten lagundu dit, beste ikuspuntu batzuetatik begiratzen. Baliteke apur bat neuroti-koago ere bilakatu izana... (barreak).

Ze esango zontsake zeure egoeria gertuko egitten jakuen beste pertsoneri?

Ba egin dezatela aurrera. Ni, nagoen moduan nago nere ama "santua"ri eskerrak, inoiz ez baitu amorerik eman. Eta pentsa, lehengo garaietan nere moduko kasuak izkutan gordetzen ziren. Ba ni txikitatik atera izan ninduten kalera. Beraz, esango nieke, nola edo ahala beti aurrera egiteko.

Ondarruara joaten ziren uda pasatzera. J. Carlos, Iciar, Oscar eta Roberto Perez Albertorekin (eskumatik bigarrena).



"Psikologia ikasketek ulerkorragoa izaten lagundu didate"



San Blas opilak bedeinkatzera sei bat urte urterekin (beheko ilaran, erdian)



ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Urritasuna duen lagun batekin topo egiten dugunean zela tratatu zalantzak izaten ditugu sarri, modu berezian berba egin, babestu, animatu, atsekabetu...

Urritasunen bat daukenekin desberdin jokatzeko dogu?

MARGARITA CASTAÑO



Badago desberdin begiratzeko dabena jendia, igual ez dakizalako ondokiak ze problema daukan. Zu, ni eta gure moduko pertsonak dira eta berekin zela jokatu jakiteko kontzientzia faltia dago gizartian.

LOLI NIEVAS




Bai, nahiz eta ezetz esaten dogun, ume txikiaren moduan tratatzen dittugu. Nik familixan badaukat urritasuna daukan senide bat, eta badaikit zela harremandu. Pixkat emotiak, bueltan mordua jasotzen da.

IGNACIO ERNABIDE




Jende asko desagradabilia izaten da. Ni neu neure partetik hola ez izeten saiatzen naiz. Baina kulturaria daukan pertsonak bestia ondo tratatuko dau eta ondo erantzungo dotsa, gaitzik inori egin barik.

JON AGIRRE



Batzutan pasatzen da, bai. Batez be gertu tokatzen ez bajaku ez dakigu zela jokatu. Dana dala, lehen baino hobeto, lehen umien moduan tratatzen genduzen. Ikasi biharko genduke, momentu deserosorik ez eukitzeko.

Eman zure iritzia sarean 

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1. behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



 **PASCUAL CHURRUGA, S.L.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 **T. 943 75 18 34**



 **Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Disceinua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Oreka Artek atek itxiko ditu

Sara Beiztegi margolariaren erakusketak itxiko du Oreka Art galeria urria bukaeran. Arazo ekonomikoak medio, Alberto Ramirez arduradunari ezinezkoa zaio aretoa zabalik mantentzea eta penaz baina egindako lanaz harro urrian itxiko ditu atekak. 2009a geroztik Euskal Herriko zein kanpoko artista garaikideen hogeita bost erakusketa ingururen topaleku izan da Oreka Art galeria. Azken erakusketa-aren inaugurazioa urriaren 14an izango da arratsaldeko 19:00etan.

Euskal dantzan trebatzeko eskolak

Euskal dantzak ikasteko eskolak urriaren erdialdean hasiko dira. Umeen izen ematea eskolan banatuko zaizkien matrikulazio orriekin egin beharko da. Aurkezpena urriaren 7an egingo da. Informazio gehiago urratsdantza@gmail.com

Blues kontzertua Eibarko Coliseoan

Gaztelupeko Hotsak zigiluak Rico MacClarrin eta Marcos Coll Band blues sortzaileak taularatuko ditu Eibarko Coliseo antzokian, urriaren 14an iluntzeko 20:14ean. Los Reyes del KO taldeko kide ohiak dira biak, nazioartean oso ezagunak. MacClarrinek blues, funk, jazz eta soul musika moldeetako artistekin lan egin du eta Coll Europako aho-soinularirik onenetakoa da. Bestalde, Gaizkak, Joaneseak, Juanek eta Iosuk osatzen duten ZZ Blues Band Soralezeko taldeak ere hartuko du parte kontzertuan. Sarrerak antzokian eros daitezke, 5 eurotan.



Antzerki pareta udazkenerako

Bi antzezlan ekarriko ditu Udalak urrian: lehena euskaraz izango da hilaren 7an eta bigarrena gazteleraz 21ean. Herri Antzokian izango dira biak, gaueko 10:15ean eta sarrerak 5 euroan eskuratu ahal izango dira kiroldegiko harrera gunean.

“Aitaren bidaian”, drama eta umorea

Joxe Ramon Soroizek, Joseba Apaolazak eta Jabier Muguruzak antzeztutako “Aitaren bidaian” lanean, aita- seme baten elkarbizitza narratzen da: aita-semeak elkarrekin bizitzera kondenatuta geratu dira. Halaxe eskatu zion amak hil aurretik Patxi semeari. Aita gaixo dago eta Patxiren bizitza infernu bilakatuko da, egunero harremanak kolokan jarriz. Historia honek itxuraz dramarako osagai guztiak dituen arren, umoreari ere tokia utziko dio, momentu barregarriak eta hunkigarriak elkarrekin lotuz.

Umerezko musika ikuskizuna gazteleraz

“Show guztiz dibertigarri” moduan definitu dute antolatzaileek gazteleraz eskainiko den “Demode Quartet” antzezlan musikatua. Taldea lau kidek osatzen dute, Mikel de la Fuente, Juli Pascualena, Mikel Espinal eta Iker Huizinek. Laukote honek ordu-bete eta erdiz a capella abesteaz gain, pianoz, gitarraz, biolaz eta kaxoi flamenkoz osatuko dute ikuskizuna, koreografiak eta elkarrizketa bitxiak tarteko.



Soroiz, Muguruza eta Apaolaza antzerkiaren eszena batean.

Errekalde beteta jaietan

Mesedeetako jaiak aitzakia hartuta herritar ugari gerturatu zen Errekaldera, bertako festa giroaz gozatzera. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere herri bazkariko paella 230 lagunek dastatu zuten. Erraldoi eta buruhandiek animazioz jantzi zituzten kaleak eta trikiti doinuek eta karta txapelketek ere herritar asko bertaratu zuten.



Iturria: Nerea Isasti

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

MARI MAR HARATEGIA

Gurean
Euskal Herriko
produktuak!

Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kaldea, 4 Soraluze



107 lagunek bukatu zuten Marraskilo Tour mendi itzulia

Goizeko 6.00ak puntu-puntu zirenean hasi zen Marraskilo Tourren bosgarren edizioa. Hainbatek antxixiketan hasi zuen mendi itzulia eta antolatzaileek lehen aldiz konpetizio itxura hartu zioten kirol froga honi. Itzulia egiten lehena goizeko 10:45etan iritsi zen Plaza Barrira. Frogako arduradunek aipatu dutenez, aurten ere, antolakuntzak Irure baserri parean ezarritako mendi markak mugitu egin dituzte eta ondorioz hainbat mendizalek Bergarara

jo zuten Soralezera jaitsi beharrean. Datorren urtean errespetuz jokatu dadila eskatu dute mendizale denek.

Partehartzaile kopuruak gora egin du aurten, 107 izan dira guztira, iaz baino 22 lagun gehiagok eman dute izena. Bazkarian 70 lagunek hartu zuten parte. Antolakuntza taldeak eskerrak eman nahi dizkie Soralezetik eta inguruko herrietatik frogan parte hartzera animatu diren mendizale denei.



Laskurain gustora Adarragan egindakoarekin

Haritz Laskurainek Xala izan du bikote Logroñoko Adarraga pilotalekuan jokatu den San Mateo torneoan. Ligaxkako lehenengo partiduan Bengoetxea VI eta Patxi Ruizen aurka 22-18 irabazi bazuten

ere, hurrengo partiduan 18-22 galdu zuten Mtz. de Irujo eta Merinoren aurka. Soralezetarrak azaldu duenez, bigarren honetan hobeto eta gusturago jokatu bazuten ere ezin izan zieten aurkariei aurre egin.

EMAITZAK

PELOTA

Idoate – Laskurain	16
Titin III – Zabaleta	22
Xala – Laskurain	22
Bengoetxea VI – Patxi Ruiz	18
Xala – Laskurain	18
Mtz de Irujo - Merino	22

FUTBOLA

Sora (Erreg. pref.) – Anaitasuna	2-0
Mutrikuarrrak SSB – Sora (Erreg.)	5-0
Sora (Jub.) – Bergara K.E.	2-4
Eibartarrak F.T. – Sora (Kad.)	6-0
Zestoa – Sora (Erreg. pref.)	1-1
Sora (Erreg.) – Aretxabaleta C	1-2
Aretxabaleta B – Sora (Jub.)	6-1
Sora (Kad.) – Arrasate	1-8

AGENDA

PELOTA

Gaur irailak 30, 22:15ean Arnedon
Titin III – Laskurain
Mtz de Irujo – Zabaleta

Zapatua 1 21:00etan
Saint Lan Les Minesen
Xala – Barriola
Gonzalez – Laskurain

FUTBOLA

Gaur irailak 30, 20:30ean Ezozin
Sora (Erreg. pref.) – Intxurre K.E.

Zapatua 1 15:30ean Unben (goian)
Gazteak – Sora (Erreg.)

Zapatua 1 11:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Urki

Domeka 2 11:30ean Ibarran
Aretxabaleta UDA – Sora (Kad.)

MENDI IRTEERAK

Urriak 9: Pagasarri Bilbon.

Urriak 23: Andoainen, ibilaldi neurtua.

Urriak 30: San Andresen Bazkide Txiki Eguna eta baba-jana.



Astlehenero kirol albisteak

Haritz
Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

HARATEGIA
Kalebarren 3. Soraleze Tel. 943 75 12 49

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

100 URTEETARREK 1910 - 2010

943 75 13 45



ZORION AGURRAK



Ane Couto
 Irailan 17xan 2 urte!
 Zorionak sorgintxo eta
 muxu erraldoi bat
 familixa dana partez!



Nora Mendi
 Irailan 30ian 7 urte!
 Zorionak eta muxu asko aitta,
 ama eta Mirenen partez.



Iraia de los Santos Perez
 Urriari 1ian 8 urte!
 Zorionak potxola,
 etxekuen partez eta
 bereziki Ikerren partez!



Sugar Ostolaza Lakuesta
 Abuztuaren 10ean 2 urte
 Zorionak sorgintxo-politxo!
 Ilargiraino ta bueltan maite
 zaittugu! Patxoak Iraultza eta
 etxekoen partez.

jaiotakoak

JONE CASTRO BAENA



hildakoak

IÑAKI DE MIGUEL ALONSO



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Marcos Coll & Rico McClarrin eta Z.Z. Blues Band ikusteko bi sarrera, Eibarko Colioseoan.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Pilar Agirrebeña

► **Carlos de Cos,** Kontrargi Argazki Kolektiboko kidea da aurreko aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pil-pilean.com**

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
 Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

TXURITXU KAFETEGIA

Mende hamarreko bektaria duya
keritaxondak larena
kate, gozoki, pastai ta apuri
jartzen giza aldira.

Berlaxara unera
sabi gozoki erakortza
guzuzara etxeri izara
sara laguntza espasa duya
beste kaxerda unera

25 urte zuzen zerbitzura zuzi esker.

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Martina Zubizarreta

IRENEREN DESPEDIDAN (40. HAMARKADA)

Irene Gabilondon ezkongai despedidia ospatzeko dotore baino dotoreago jantzi ziran bederatzii emakume gazte honek. Sasoiko soineko eta orrazkerekin, egun hartan egunpasa politta egin zebela dauke akorduan. Erretratua Soraluzen jasotakua da oin 70 urte inguru. Emakume honetako batzuk sasoi betian 90 urte bete teko dittue aurtan.

Argazkixan:

Goixan: Maritxu (la txinita) eta Maria Etxabe †.

Erdixan: Mari Luz Prieto, Jesusa Bengoa †, Irene Gabilondo, Martina Zubizarreta eta Valentina Zozaya †.

Behian: Miren Aranzamendi eta Fermina Gogekoetxea †.

Argazki zaharrak behar ditugu

Izan direlako gara...



Iragana **gogoratu** dezaten
bizi izan zutenek
Iragana **ezagutu** dezaten
bizi izan ez zutenek

Baldin badakizu,
ez ahaztu...
protagonisten izenak,
urtea, lekua eta
konturen batzuk!!





Asto-kaka

Urriak 14 eta 15

Plaza Txikia-Leku Eder

URRIAK 14, ostirala

URRIAK 15, larunbata

19:00 Asto-kaka karparen irekiera

- Pintxoak eta edariak
- Musika

11:00 Asto-kaka karparen irekiera

- Pintxoak eta edariak

20:30etik aurrera: Afari-mokadua

- Razioak, postrea...

12:00 **ASTO-KAKA JOKOA**

14:30 Baba-jan herrikoia

- 25€ (20€, Elgoibarko Izarrako bazkideek, Umeentzako menu berezia 10€
- Bazkarirako izena urriaren 7a baino lehen eman behar da.

22:30 Kontzertua:

- Txalapartariak
- Mari Juli eta Agurtzane
- Hankahutsik!
- K-104
- Napoka Iria
- ...

17:00 Dantzaldi-erromeria, MP5 taldearekin

20:00etik aurrera: DJ jaiak, Asto-kakari amaiera emateko

BARREN diruz laguntzeko jokoa
Txartelak salgai 3 eurotan



1. saria: 2.000€
2. saria: 1.000€

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

B

Tel.: 943 741 626 elgoibarkolzarra@elgoibarkolzarra.com

Danok irabaziko dogu BARREN! Etorri eta gozatu!



Euskal Sagardoen Selekzioa EIBARREN

antolatzailea:



BIHAR

**Urriak 1
zapatua**

12.00-15.30
19.00-amaitu arte



ALORRENA • ALTZUETA • BARKAIZTEGI • BEGIRISTAIN • EGI-LUZE • GARTZIATEGI • GAZTAÑAGA • GURUTZETA • ISASTEGI • OLAIZOLA • SARASOLA • ZAPIAIN • ZELAIA

Eskerrik asko
zuen babesara eta laguntza
emoten diharduzuen danori.



SORALUZE 1936 Lan Taldea

Pil-Pileaneko DISEINU GRAFIKO

ZERBITZUA



ONARRIZKO PAPERDEGIA KARTELAK
ALDIZKARI eta **ESKUORRIAK**



BINILOK
ARGAZKIEN
TRATAMENDUA
LOGOTIPOAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe diseinu@pilpilean.com helbidean edo 943 75 13 04 telefonora deituta